



Guraso horiek:

Ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, badator Korrika! Martxoaren 14an Irunen hasi eta 24an Baionan amaituko da 23. Korrika. Ordiziatik martxoaren 23an goizeko 11:30 aldera pasako da. Gu dagoeneko hasita gaude herriko batzordeetara joaten eta etxe barrurako girotzea prestatzen.

Jakingo duzuen modura, ekimen hau AEKri, eta bide batez, euskarari laguntzatxoa emateko aukera ederra da. Horretarako, besteak beste, kilometro salmenta egiten da eta Jakintza ikastolatik hiru kilometro erosteko asmoa dugu: bata ikastolarena, bestea langileona, eta hirugarrena ikasleena. Ikasleen kilometroa erosi ahal izateko, LH5etik hasi eta DBHO2ra arteko ikasleei bi euro ekartzeko proposatuko diete Euskaraz biziko ikasle ordezkariak. Argi utzi nahi dugu ez dela derrigorrezkoa izango eta nahi duenak soilik egingo duela ekarpena. Gainera, bi euro baino gutxiago edo gehiago ere ekar daitezke; aurrez aipatutakoa ikasle ordezkarien proposamena baino ez da. Dirua ekartzeko epea otsailaren 23a izango da, eta gelako tutoreek jasoko dute.

Bestalde, badaude diru-laguntza emateko beste hainbat modu. Batetik, Korrika-laguntzaile izan zaitezke. Horretarako, [Korrika.eus webgunean](http://Korrika.eus) sartu eta zuen datuak eman beharko dituzue. Bestetik, materiala eros dezakezue: Korrikan janzteko petoa, kamisetak, kantinplorak... Erosketa bi eratara egin dezakezue: [online](#) edota Beasainen Arrano ondoko herri-dendan ostiral arratsaldeetan zein larunbat goizetan.

Euskararen sustapenean bidelagun izango zaituztegunelakoan,

Jakintza ikastola